

TOLOSALDEKO HERRI ALDIZKARIA

Galtzaundi

ESKUALDEA: Kilometroak jaiaren helburuak beteta » Anoetako euskal jaiari baserria protagonista » Engels ateneoa zabalik. » Baso-suteen aurrean Tolosaldea prest **KULTURA:** Tolosak zinemaren aldeko apustua. » 40. aldiz abesbatzarik onenak Tolosan



KIROL SALTSA: Herri kirolak bizi-bizirik Baliarrainen

*Luis Javier
Zurutuza
Herritarren
saltsaren
kronikari*

GAZTEOK 4
TOLOSA

INFORMATIKA ZERBITZUAK: Nola aukeratu pantaila egokia



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK





MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

2

betaurreko

98€

kristalak barne

www.multioplicasgipuzkoa.com

Eskaintza honen balioa 08/09/01etik 08/10/31ra artekoa da. Beslay 1.5 lente organiko gogortuak; zilindroa, +2; esfera, +2tik -4ra. Eskaintzaren balioa betaurreko bietan graduazio berdina izatekotan da, eta ezin da metatu beste promozioetara.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRENTERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	--	--	--	---



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa

Tel_943 650 375

Faxa_943 655 206

gtolosa@aldamatapia.com

www.aldamatapia.com



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antxon Izagirre, Ibon Antola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurus, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banataleak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirmezabala

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegotain, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxoa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritziaren erantzukizunik.



zerbitzua eta lana euskaraz



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
KULTURA SAIA
HEZKUNTZA, TURISMO, ENBESKUNTZA
DIRUZ LAGUNDUTAKOA

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Unai Igartua: Mondejue ta konejue.
- Edorta Perez: Zinemaldi arrosa.

NORMALIZAZIO ATALA

- Urriaren 19an denok Iruñeara.



4-5. orrialdeak

6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Kilometroak jaiaren helburuak beteta.
- Anoetako euskal jaiaren kronika.
- Engels ateneoa zabalik.
- Baso elkarte sute arriskuari buruz

11-17 orrialdeak

Galtzaundi 288

2008ko urriaren 17a

Iritziaren leihoa: Unai Igartua eta Edorta Perez	4-5
Eskualdeko albisteak:	
Kilometroak, helburuak beteta	11
Kilometroak jaia irudietan	12-13
Anoetako euskal jaiaren kronika	14
Engels ateneoa zabalik	15
Kultura: Zinemaz gozatzeko aukera herrian	18-19
Kirol saltsa: Herri kirolak bizi bizirik Baliarrainen	22-23



ELKARRIZKETA

Luis Javier Zurutuza

7-10. orrialdeak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

KULTURA

“40. aldia ospatzeko Tolosan abestu duten eta sensazio berezia eragin zuten zenbait abesbatza gonbidatu ditugu. honetaz gain mikrokosmos ikuskitzuna antolatu dugu zinea eta abesbatza uztartzen dituen emanaldia da hau. Zoragarria izango da”

• Luismi Espinosa
ABESBATZA
LEHIAKETAKO
ZUZENDARIA

21 orrialdea



MONDEJUE TA KONEJUE!!

UNAI IGARTUA

Eneko Aritzaren Lagunak elkarteko kidea

2008-ko Urriak 4, urte-oro legez, hor goaz Aralarko minatatik gora, Joxeantonion bordan egun-pasa eder bat egitera. Dagoeneko urte batzuk badaramatzagu egun sakratu honetaz gozaten, lagun bizkaitarrekin batera. Mendi buelta bat eman ondoren, tripa zorriak puri-purian ditugula, Joxeantonio handiari besarkada bat eman eta mondeju zopekin hasten dugu amaigabeko bazkaria. **Ño!!** Goseak bultzata bi aldiz gutxienez errepikatu beharra dago! Sagardo trago “parea” bota eta lehen plater gisa, mondeju puska ederrekin jarraitzen dugu. “Hoi dek hoi!! Aupa Joxeantonio!!!” Zati bat barrura, bigarrenaren aurretik, eta hirugarren zatiak ez du atzean geratu nahi. Makina bat bazkari-tan geratuko ginen momentu honetan baino gutxiago janda, eta hau hasi besterik ez da egin, Redio!!! Urte guztian

jango ditugun mondejuak jan ondoren, sagardo trago “parea” bota, eta hor dator Nekane gixau burruntzalia eskutan duela, guda bateko soldaduei jana eramatera joango balitz bezala. Burruntzalitik platerera, plateretik ahora... eta auskalo non bukatuko duen... “Aurten ere earra atea zaik Joxeantonio!!!”

Hala ere, eta mondejuarekin batera, sukaldari bikain honen bigarren izarra untxia dugu. Sagardo trago “parea” hartu, eta dasta guruinak dantzan jartzen dira lehen zatiarekin topo egitean, sabela lehertu beharrean izan arren, ezin gelditu, hau dek hau!! Etxean mila aldiz saiatu arren, ezin kalitate erdia duen untxirik kozinatu. Izugarrikio artea du gizonak!!

Sagardo pareta (parea diot, baina dozena pareta ere esan nezake), eta hor dator gure artista, Joxeantonio, mahaiz mahai, gazta erdia sabelean

jarrita, bazkal lagun guztiei urrezko jaki honen zati bana banatzen. Gazta ere latza!!!

Azken sagardo trago “parea”, eta kafe pixkat hartu ondoren, patxaranaren ordua, beste botila “parea”...

Orduan hasten da “Bizkaitarren” ikuskizuna, trikiti, alboka, pandero, eta izenik ere ez dakizkidan instrumentuak hartu, eta mendiko borda batean galduta kantu eta bertotan hamaika lagun, lehengoak eta oraingoak, neskak eta mutilak, artzainak eta kalekumeak... Bizi egin behar zer den jakiteko!! Azkenik, makina bat euskal kantu abestu ondoren, mila bertso entzun ondoren, eta bi bertso txar bota ondoren, gabeko hamarretan habiatzen gara beherantz, ilunpetan eta mondejuz mozkorturik!! Aurten ere EARRA, LATZA, INKREIBLEA (lagun batek esango luken bezala)!!! Eskerrik asko bihotzez Joxeantonio, Nekane, Iraola eta Pello!!

“Urte bete beranduago, oraindik barruan diraute, Aranjuez eta Caceresen, zertaz akusaturik dauden jakin gabe, eta epaiketarik izan gabe. Ezerezari itxoiten, tinko baina itxoiten. Aurtengo mondeju jana zuen omenez doa”

2007-ko Urriak 16, iazko mondeju jana egin ondoren, hiru egun beranduago, zakurrek mondeju jana erakutsi ziguten bi anai bizkaitar atxilotu zituzten. Urte bete beranduago, oraindik barruan diraute, Aranjuez eta Caceresen, zertaz akusaturik dauden jakin gabe, eta epaiketarik izan gabe. Ezerezari itxoiten, tinko baina itxoiten. Aurtengo mondeju jana zuen omenez doa, Aner eta Lander, hurrengo urtean gurekin izango zareten itxaropenez...!! Eutsi goiari!!

NUEVO CITROËN C4

DESDE **3,81./100 KM**
CONSUMO EXTRAURBANO

CITROËN C4 BERRIA

12.100€* tik hasita
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI*

0% MATRIKULAZIO ZERGA:
C1 | C2 HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 CMP

Kontsumo mixtoa (L/100 km.) CO2 jaulkipena (grs./km): C1:4.1-4.6/108-109 C3: 4-3-7.2/113-172 c4:4.5-6.9/120-175 Xsara Picasso: 5.1-7.3/135-172 C4 Picasso: 5.7- 8.0/ 150- 190

*Publikariari ahotkatutako prezioa: C1 1.0d3p., C3 1.1i Furio, C4 1.4 16v 90cv LX Sp., Xsara Picasso 1.6i 16v LX Plus. C4 Picasso Sp. Vti 120 Cool (B.Z.E., matrikulazio zerga, garraio eta eskaintza promozioa barne). Eskaintza ez metagarriak. Hilabete amaierara arte balio du stock-ean dauden turismentzat penintsulan eta Balear Irietan bezero partikularrentzat, operazioan parte hartzen duten salmentan puntuetan. Itxugai dauden modelok: C1 Audace, C3 Exclusive, C4 Exclusive Plus, Xsara Picasso Exclusive, C4 Xsara Picasso Exclusive. SP: matrikulazio zerga, garraioa eta eskaintza barne). Eskaintza metatzen. Hilabete bukatara bilare balagarriak, autontzati eta stock-ean dauden autoentzat. Penintsulan eta Balearretan bezero partikularrentzat, operazioan parte hartzen duten ohiko tokietan. Inklusioak argizkiak: C3 Exclusive, C4 VTR Plus Sp., C4 Picasso Exclusive Sp. 1) Arriku orotariko aseguru opari (frankizia (210 - 600 euro orotara) barne, lehenengo urte osoan, Direct Seguros etxearekin eta Aon Gil y Carvajal S.A. aseguru korredorearen bitartekaritzaekin, Citroën Credit-ek eskainta, C4 edo C4 Picasso Sp erosten duten 28 urteko gorako bezeroentzat eta C3-a eskuratzen duten eta 5.000 euroko galtasun ekonomiko minimoa duten adin guztietako eroaleentzat.

ZATOK IKUSTERA:

IROVI, S.A. Citroën kontzesionario ofiziala:
Industrialdea z/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

CITROËN

EZIN DEZAKEZU IMAGINATU CITROËNEK ZUGATIK EGIN DEZAKEENA

PREZIO BERRIAK GAMA GUZTIETAN:



CITROËN C1
7.600€* tik hasita



CITROËN C3 9.200€* tik hasita
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI**



CITROËN XSARA
PICASSO 12.900€* tik hasita
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI**



CITROËN
C4 PICASSO 18.350€* tik hasita
+ ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA OPARI**

Informazioa Citroën 902 44 55 66



CITROËN **preferie TOTAL.** **CITROËN Credit** Patrocinador Oficial

ZINEMALDI ARROSA

EDORTA PEREZ

Zinemaldiaren jarraitzailea

Aurtengo edizioak bi kolore nagusi izan ditu: arrosa eta grisa. Lehenengoa Kursaleko alfonbrarengatik eta bigarrena lehiaketan parte hartu duten pelikulen gaiengatik. Film gehienek gai dramatikoetan oinarritutako gidoiak zituzten.

Egun hauetan, sail ofizialean 15 pelikula proiektatu dira. Epaimahaiak, Jonathan Demme zine zuzendaria lehendakaria duela, oso lan zaila izan du, horrela jakin arazi zuten sari-banaketaren garaiean. Oso film onak aurkeztu dira lehiaketan eta pronostikoetatik kanpo zegoen pelikulak eraman zuten sari nagusia.

Yesim Ustaoglu turkiar zuzendariaren "Pandora's box"ek ("Pandoraren kaxa") eraman du filma onenaren urrezko maskorra. Bere laugarren filma da hau eta Alzheimeraren inguruko historia kontatzen digu. Gainera, pelikula honetako aktoreak, Tsilla Chelton, 90 urterekin, aktore onenaren zilarrezko maskorra eraman du Melissa Leorekin batera.

Aurten ere, egun berezi bat izan du euskal zineak Zinemaldian. Maria Cristina Hotelean ospatu zen festa-ekitaldian besteak beste Nestor Bas-



terretxea "Amalur" filmarengatik eta Marivi Bilbao aktore-sari omenaldia egin zioten. Bertan, euskal zinemarekin eta orokorrean euskal kulturarekin zerikusia duten ehunka pertsona bildu ziren, adibidez, Miren Azkarate, Andoni Agirregomezkorta, Lurdes Bedia edota Pablo Malo.

Donostia sariak, Antonio Banderasek eta Meryl Streep-ek jaso zuten. Lehenengoa Zinemaldian behin baino gehiagotan izan da bere pelikulak aurkezten eta etxean bezala sentitzen dela nabaritzen zaio. Saria besteak beste bere emazteari eta hil berri den bere aitari eskaini nahi izan zion. Bigarrenengoa berriz, Zinemaldiko antolatzaileentzat amets bat betetzea izan da. Streep andereñoa hurbila eta oso dibertigarria egon da bere bisitan. Oso emozionatuta jaso

zuen bere saria eta eskaini zuen prentsaurrekoan txiste bat baino gehiago kontatu zituen.

Eta egun gauetan pelikulaz bakarrik ezin denez bizi, aurpegi ezagun asko pasa dira alfonbra arrosatik. Javier Bardem, John Malkovich, Ben Stiller, Miguel Angel Silvestre, Leonor Watling eta Hugo Silva ikusi ahal izan ditugu besteak beste autografozale guztien desioak betetzen, ia guztienak behintzat. Badirudi Zinemaldia konturatu dela azken urtetako edizioak ikusita, pelikula onak ekartzea garrantzitsua bada aktore ezagunak ekartzeak ere ezinbestekoa dela jenderarengan eta komunikabideengana kuriositatea pizteko. Eta gainera, alfonbrari kolore arrosa ezarri diote, zergatik ote da? Esan kolore honek iritzi kontrajarriak izan dituela baina

Beste sariak

Epaimahaiaren saria "Two-Legged Horse" Samira Makhmalbaf zuzendariarena (Iran-Frantzia)

Horizontes Saria "Gasolina" pelikularengatik. Julio Hernández Cordón zuzendua (Guatemala)

zer demontre, ideia originala izan dela ez dago dudarik.

Zinemaldiaren 10 egunetan, 177.000 pertsona pasa dira zinema aretoetatik. Iaz baino 1.100 pertsona baino gehiago. Beraz, argi dago Zinemaldiak bizitza luzea duela. Eta bukatu baino lehen, ez ahaztu Obamak hauteskundeak irabazten ez baditu, Meryl gure artean izango dugula bizitza. ■



Martin Eceizabarrena

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA


SHANTI

kirolak

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

Urriaren 19an denok Iruñara!

"ATERA EZAZU MIHIA" NAFARROAKO IKASTOLEN EGUN HANDIAN.



Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen jaia da. Urte bakoitzean, ikastola batek hartzen du Nafarroa Oinez antolatzeko ardura. Aurten Iruñeako Jaso Ikastolak hartu du urriaren 19an, Iruñean, ospatuko den festaren ardura.

erakusgarri izan nahi du. Proiektu hau gizarteratzeko eta sustatzeko tresna bat baita. Oraingoan, Iruñeko Jaso Ikastola

izango da proiektu handi hori antolatzeko ardura hartuko duena. Amaierako egun handian, 100.000 pertsona baino gehiago biltzeko aukera dago. Zalantzarik gabe, ikastola prest dago erronka hori gainditzeko. Horregatik, urriaren 19an ospatuko den eta lelo gisa atera ezazu mihia duen jai handira joateko gonbidapena luzatu nahi dugu.

Erredakzio Batzordea

Urte osoan zehar antolatzen dira jarduerak, eta azken eguna Nafarroa Oinez egun handia izaten da. Azken egun horrek euskararen aldeko elkartasunaren eta elkarrekin lan egiteko ahalmenaren

JASO IKASTOLA

Bederatzi urte igaro dira Jaso Ikastolak, 1999an Nafarroa Oinez antolatu zuenetik. Urte hartakoak zapore gazi-goza utzi zuen ikastolan; euriak, izan ere, lan eta ilusio handiarekin antolatutako egun bat hondatu baitzuen. Oraingo eraikina estreinatu berria zuten eta beraien itzaropena zen, egun hura oso lagungarria izatea ikastola berria ordaintzeko; eguraldi txarrak, ordea, aukera guztiak zapuztu zituen. Baina ez hori bakarrik, beraien asmoa baitzen iruindarrekin partekatzea beraien hezkuntza proiektua eta eguraldi txarrak nahi hori ere hondatu egin zuen.

Laguntza ekonomikoa funtsezkoa da ikastolen, eta kasu

honetan Jaso Ikastolaren hezkuntza ereduak aurrera egin dezan. Nafarroa Oinez laguntza handia da etorkizunean hezkuntza eskaintza hobetzen edo indartzen lagunduko duten inbertsioak egiteko.

Bederatzi urte hauetan, proiektu pedagogiko ugari eraman dituzte aurrera, ikasleen kopuruak gora egin du, 679 ikasletara iritsiz. Ikastolak eboluzionatu egin du eta, noski, Iruñerriko errealitatea bera ere asko aldatu da. Hori guztia dela eta, egokia eta beharrezkoa iruditzen zaie beste Nafarroa Oinez bati ekitea; ilusioa berreskuratzeko une egokia baita.

Bestalde, Nafarroa Oinezek aukera ematen die jaiaren inguruan gertatzen diren arazo, jokatibide eta errealitateekin lan egiteko: ingurumenaren gaineko kontzientziazioa, drogen erabilera kaltegarria, elkartasun kolektiboa, euskararen erabilera eta abar.



Annetxe
LORATEGIA CB
Ebebarru zelin kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA



**CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**

N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurak
Kotxe-asegurak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurak
Denda-asegurak
Erretiroak
Inbertsio fondoak

**ALDATZ
Kristaldegia**

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispilluak
Beirate artistikoak
Dubxa-ibiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



**BENTA
ALDEA**

JATETXEA

Tel.: 943 654 079
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

**ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

Jurre, 4 (Mustad) 943 672 300
Amaroz, 21. 943 675 513
20400 TOLOSA



Shanti tabernan basurdea zintzilikatzen zuten ehiza garaian. Argazkiaren eskubi aldera Luis Javier Zurutuza ikusi dezakegu.

Luis Javier Zurutuza, tolosarren arima erditik

“HERRI BATEN HISTORIA PERTSONEK EGITEN DUTE ETA NIRE INFORMAZIO ITURRIA JENDEA DA”

Felix Aiestaran

Zurutuza ez da ezer egin gabe egoteko balio duen horietakoa eta Joxemi Saizarren “erruz” ausartu zen kronikak idazten hastera. Los Secretos-ek Tolosan egin zuen emanaldi bat zela eta kronika bat eskatu zion. Gustura sentitu zen, eta egun Tolosako gaurko zein garai bateko gorabeherak dotoreziaz idazten ditu egunkariko herriko kronikan. Izugarri eskertzen du kalean herritarrek gaiak proposatu izana. Nobela poliziakoa ere osatzen ari da.

Luis Javier Zurutuza Izagirre (1948, Tolosa) aita ataundarra eta ama Txaramakoa izanik tolosar peto-petoa dugu. Tabernari ohi, musikari, rockero-zaharra, kirolzale eta azken aldi honetan Tolosako kronista bizi eta trebea. Bere aita, Shanti, mila saltsatoko antolatzaile trebea izan zen: boxeolari, ilemoztaille, Tolosa CF-eko lehendakaria... Bere semeei bueltan ezer espero gabe eman egin behar dela irakatsi zion. Biek 1979an jaso zuten Shanti tabernaren inguruan jarraitu dute: Anjel Marik Shanti kirolak sortu zuen Arostegieta Kalean eta bertan jarraitzen du, kirol munduan murgilduta, Shanti Torneoa antolatuaz, besteak beste. Luis Javierrek, Javik, urte luzez Shanti Tabernaren topaguneaz baliatuz, bere aitaren ildotik, mila saltsatan murgildu zuen bere burua: Realerako autobusak antolatu, musika talde ugaritan parte hartu izan zuen... Usabalen mutil gaztetxoak entrenatzen dihardu orain.

Nolakoa zen zure aita, Shanti?

Saltseroa zen. Ataunen ttikia zela mando batek ostikoa eman eta sudurra hautsi zion. Boxeolaria zenez, jendeakuste zuen borrokan hautsi zuela. Gipuzkoako txapelduna izan zen. Beti aurpegia markatuta zuela ibiltzen zenez denek galdu egin ote zuen galdetzen zioten adarra joz, baina berak irabazi egin zuela erantzuten zien. Beti puntutan irabazten zuen. Belaten Boxing bat sortu zuen, txapelketa ugari antolatzen zituen. Ile-moztailea ere bazen. Zezen plaza inguruan, Izarpe Taberna dagoen tokian, Shanti Taberna sortu zuen.

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

Atzeko aldean umeei zine saioak jartzen zizkien, ilea mozten zuen, txapelketak antolatzen zituen... Aitak eskuzabalak izaten irakatsi zigun. Tolosa CF-ko lehendakaria zenean, amak tabernako igandeko kaxa begiratu eta hutsik aurkitu izan zuen Shantik arbitroei bertatik ordaindu ziela eta. Inauterietan, nahikoa egin zutela eta taberna itxi eta gozatzeko esaten zigun. Gure etxetik masajea hartzeko kirolari ugari pasa zen: Irazu, Mendizabal, Veletako arraunlariak, Olarraingoak... eta inoiz ez zen ezer kobratu. Pilotari ugari-ekin ere ibili zen. Betikoa: gehien zutenak ematen zuten gutxien. Gipuzkoako Futbol Federazioko zuzendaritzan ere aritu zen eta bera izan zen Gipuzkoako lehen futbol entrenatzaile nazional tituluduna, Benito Diazekin batera. Espainiako bandera ertz batean zuen agiri hura eramaten zuen karteran eta hura ikustean garai haietako kontrolatan koadratu egiten ziren guardia zibilak eta pasoa ematen ziguten. Astibiaren entrenatzailea izan zenean, ez zuen apusturik egiten jendea egiteko eske etortzen zitzaion arren.

Shanti Taberna topalekua izan zen askorentzat. Zer izan zen zuretzat?

Shanti herriko taberna zen. Aitak tabernatik bizitzen irakatsi zidan eta ez tabernarako. Musika eta beste hainbat alor jorratu ahal izan genituen aldi berean, amaren babes osoa genuelako. Shanti Taberna bertako euskaldun eta erdaldunentzako topalekua izan zen. Ibilbide luzea izan zuen. Aitak Errazkin eta bes-



“Shanti Taberna bertako euskaldun eta erdaldunentzako topalekua izan zen.”

te hainbat herritako neska euskaldun elebakarrak jarri zituenean tabernan, Tolosa bertako bezero euskaldunek kirtanak edo paletoak zirela leporatzen zieten. Hauek horri erantzunez erdaraz hitz egiten hasi ziren eta horren ondorioz bi anaioi ezin ziguten euskara irakatsi, gurasoen nahia horixe zen arren. Bi anaioi euskara ez ikastearen arrazoi bat izan zen hori, nahiz eta geuk ere badugun errua. Jen-

dea gustura egoten zen. Askorentzat bigarren etxea zen, are gehiago etxeetan telebista edo beste ezer ez zegoen garaian. Solasaldi ugari izaten zen, baina gaur egun ez dago horrelakorik: politikak dena hondatu du. Shanti ez zen tragoxka bat hartzeko taberna hutsa. Aitak jarri zuen Tolosako tabernen artean lehen telebista. Koloretakoa jartzen ere lehenak izan ginen eta musika ekipoa jartzen berdion. Ekipoa Xanti Ugarteri erosi nion. Argia jaitsi eta musika entzutean betiko poteatzaileak ea taberna putetxea bihurtu zen esaka hastean aitari, honek gazteen gauzak zirela erantzuten zien. Hori 1978an izan zen.

Zer nolako bizipenak izan zenuztuzten tabernari bonba jarri ziotenean?

1979ko maiatzean jarri zuten bonba. Igande hartan Tolosa osoa itxi egin zen eta manifestazioa egin zen. Orduan politikaz desengainatu egin nintzen. Batzarrean ezagutzen ez nuen jende asko zegoen. Manifestazioa nola egin behar zen eztabaida bizia zegoela, eztabaidaren erdian jarri eta ea babes emateko edo gu erabiltzeko bildu ziren galdetu nien. Manifestazioa isila izango zela eta pankartan “Shanti elkartasuna” besterik ez zuela jarriko esan nien. Aitak Iñaki Linazasoro alkateari eskerrak emateko hitza hatu zuenean, nire ondoan zegoen batek hitz egi-



Shanti taberna honela geratu zen bonba lehertu eta gero.

ten zuena zein tontolaba zen esan zidanean, bertan zegoen tontolaba bakarra bera zela erantzun nion. Bestetik, bizibizi ditut oroimenean, Joxean Lasa eta Joxi Zabala, gogotik lan egiten zaborrak atera edo tabernaren muntaketan laguntzen.

Shanti Taberna kirol munduarekin oso lotua egon zen beti...

Aitak sartu zigun kirolzaletasunaren harra. Anaiak eta biok hogeita bost urte egin ditugu Gabonetako Txapelketa antolatuz. Aurretik ere aitak antolatzen zuenaren berri eman izan digute. Bera bakarrik sartzen zen saltsa ugaritan. Arraunketa irteera berak ematen zuen, eta beti gonbidatzen zituen San Joanetako irabazleak pintxo bana jan eta txanpaina edatera. Ehiza garaian berriz, tabernan basurdeak ipintzen ziren astelehenetako ganadu feria zela eta biltzen zen jendea kontuan hartuta.

Tabernako musika zaindu egiten zenuen...

Duela hogeita hamar urte,

gauetan martxarako jartzen zen musika bera jartzen da gaur egun ere. Une bakoitzak musika mota bat eskatzen du eta gauak musika patxangeroa eskatzen du. Tabernan istilurik gabe giro beroa izan nahi baduzu, hortik jo behar duzu. Musika zuzenekoa ordezkazina da. Ez nago dj-en aurka. Nik ere badakit musika ona aukeratzeko.

Zein izan zen kamarerorik menperaezinena?

Antxon Zuaregi izan zen kamarerorik eztabaidagarriena. Arbela handi batean futbol partiduetako emaitzak klariotz jartzeaz bera arduratzen zen. Kamarero hasi zenean, Real Madridekoa zen eta Realeko zaleekin ezinikusi handia zuenez eztabaida ugari izaten zituen. Nik asko maite dut. Zunbeltzeko Agus kamarerorik dibertigarriena izan zen. Dendan hasi berria zen eta dirua behar zuenez Inauteri batzuetan gurekin aritu zen lanean Ondo hasi zen lanean. Igandea iritsi zen: bazetorrela eta ez zetorrela...gau hartan zaldi baten gainean Astaeasua-

rra barrura zihoala, atearen goiko markoaren kontra jo buruaz eta atzera erori zen. Beste behin, esku muturretan zintzilikarioak zituen jantzi batekin etorri zen, pintxo guztiak lardaskatuaz... kentzeko esan nion eta ez zituen hiru disfraz soinean jantzita bata bestearen gainean, bada? Barrez lehertzekoa izan zen. Ezin nuen haserretu Agusen gizatasuna ezagutzen nuen eta asko maite dut bera. Iñaki Arratibel, Kañon Etxeberria BBVA-koa ere aritu ziren. Jofresarena kristorena izan zen: Parean bizi zen eta aita haserretzen zen aldioro gure tabernara bidaltzen zuen zigortuta. Shanti Tabernan izan nuen hoberena bezeroak izan ziren: jatorrak eta beti laguntzeko prest. Bertan egon zen Rayo Piña, Urdiña Txiki Peña, Maguregi Peña... Orduan izugarrizko giroa zegoen: astegunez gaueko hamarretan mus txapelketak izaten ziren, pintxo bat edo janaz kafe toeroa hartuta.

Zer ziren bezeroak zuretzat?

Lagun asko egiten nituen.

“Taberna batean bakarrik sartu den bezeroari zerbitzatu beharrean edalontziak garbitzen jarraitu edo zerbitzatu ondoren, solas egiteko aukera eman gabe txoko batean gurutzegramak egiten jarraitzea, heziketa falta izugarria da.”

Bezeroa errespetuz tratatu behar da. Taberna batean bakarrik sartu den bezeroari zerbitzatu beharrean edalontziak garbitzen jarraitu edo zerbitzatu ondoren, solas egiteko aukera eman gabe txoko batean gurutzegramak egiten jarraitzea, heziketa falta izugarria da. Nik txisteak kontatzen banituen, bezeroek bereak kontatuz denok partaide ginelako zen.

Zer dela eta hasi zinen egunkarrietan kronikak idazten?

Joxemik behin Hitzarako eskatu zidan eta handik urtebetera Tolosa CF-ren partiduetan speaker modura hasi nintzen. Halako batean, Juanma Goñik partiduez idazteko eskatu zidan. Nire kronika oso atipikoa izango zela ohartarazi nion. Asteartean argitaratu behar bazen partiduen berri aurretik emana zegoen. Horrela nik Elgoibar-ko joan-etorrian Vietnamgo gerran baino hildako gehiago izan zirela, Ranboren filma jarri baitzuten edo Ferdinandinori alkandorak nork lisatzen dizkion aipatzen dut, eta bukaeran futbolaz pixaka bat idazten dut. Sentitzen den

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

moduan eta labur idatzi behar da. Aitor Urkolak Euskadi Irratiko kazetariak, ea zenbat aldiz idazten nuen kronika bakoitza galdetu zidan eta nik lehendabizikoan egiten nuela erantzun nion. Berak esan zidan behin idatzi behar dela, sentitzen den bezala sortua.

Jendarte korapilatsu honetan egunerokotasunaren printza biziak islatzea ez al da beharrezkoa?

Herri bati gerta dakioken gauzarik txarrena oroimena galtzea da. Ez 750 urteurren

Herri baten historia pertsonak egiten dute. Luxuriagak kontatu zidan Tolosak traine-rua atera zuen hartan Donostian irabazteko faboritua zela. Tartean ziren lau oriotar eta bi lasartearrek tongo egin eta ez zuten irabazi Donostiako estropada. Nire informazio iturria jendea da. Jendeak kontatzen didana idazten dut.

Beste zerbait idazten al duzu?

Kopetas izeneko protagonista duen trilogia poliziakoa idazten hasi nintzen duela urte t'erdí. Protagonistaren aita, guardia zibila bera, kan-

“Nire informazio iturria jendea da. Jendeak kontatzen didana idazten dut.”

Kaxianok zuen graziarekin, faltsukeria handia zegoela esan zigun, etxerako bidean harrapatzen zuten neska artasorotan berehalaxe sartzen zutelako. Behin Ibarren gertatutakoa izugarria izan zen. Tartean Sebas zegoela, eszenatokira etorri eta zezenen irteera doinua jotzeko esan

grabatzen lehenak izan ziren Los Tauro taldea zegoen. Izas-
kun errepedeko lehen kurban,
garai hartako taberna eredu-
tik ateratzen zen REM ize-
neko taberna zegoen. Bertan
pintura erakusketak egiten
ziren eta besteak beste Los
Tauro taldeak bere diskoa
bertan aurkeztu zuen. Haie-
kin bateriarekin proba egiten
hasi nintzen eta The Micha-
els izenarekin argazki publi-
zitarioan atera nintzen. Gero
Los Drakes-en aritu nintzen.
Aldi berean Los Carol-en ere
parte hartu nuen. Oso txar-
ra zen Benito Usabiagaren
Los Cardinales ere hor ibil-
tzen zen. Beotibar Frontoian
igandero lau mila pertsona
biltzen ziren, estatuko musi-
kari hoberenak etortzen bai-
tziren: Los Pekenikes, Moce-
dades, Karina... Badago hiri
leienda bat ekitaldia amaitze-
an Karinari norbaitek kule-
roak kendu zizkiola dioena.
Orduan andregaia zen emaz-
tearekin Fronton Kafetegian
nengoela Victor Manuel aur-
keztu zidaten. Bere gitarra eta
teklatu eskas batekin etorri
zen. Musika ekipoa ekarriko
zuela galdetu nionean ezetz
erantzun zidan. 300 Watioe-
kin gaizki ibiliko zela lau mila
lagunen aurrean esan nion.
Nik bateria jotzen nuela eta
Semprini ekipoa genuela
aipatu nionean, ez zuen sines-
ten Tolosan horrelako ekipoa
egon zitekeenik, hobere-
na baitzen. Saioa amaitzean
kamerinoan esan zidan egin
niona ez zuela inoiz ahaztu-
ko. Bizitza honetan inoiz
laguntza behar banuen dei-
tzeko esan zidan. Tolosak
adina perkusionista on
dituen herririk ez da mun-
duan izango: Txutxo Gar-
mendia, Longaron, Aranze-
gi, Letamendiaren semea,
Josetxo Karrera... Guztiak
tolosarrak, herritarak,
herriaren historia osatzen
dutenak. ■



Javier Zurutuzak gazteak entrenatzen ditu Usabalen.

moduko oroimena, herria osatzen duten milaka gauza ttikiren oroimena baizik. Baina etxez informazioa biltzen hasi naiz eta nire semeari kontatzen diodanean portalekoentzat komunitaterako bainua zegoela eskuak burura eramaten ditu. Bizipen horiek gure bizitzaren zati dira eta gorde egin behar dira. Nire kronikak irakurri dituen jendeak kalean gelditu arazi egiten nau. Hori oso polita da. Lehengoan emakume batek gure taberna ondoan zegoen Olasagasti Pasteleria ez nuela aipatu ohartarazi zidan.

pora destinatzen dute eta urte batzuetara, Euskal Herrira itzultzen denean ikerketa inspektore modura, artasoro batean izandako neska baten hilketa ikertu behar du. Ideia hau hamasei urte nituela bizi izan nuen une batetik bururatu zitzaidan. Kaxianorekin Lizartzan jotzen ari nintzela, zazpiren bat bikote plazan helduta ari ziren dantzari, eta jende pila bat goiko eliz ondoko atarian ari ziren soltean, herriko apaizak helduta dantzari egitea bekatutzat jotzen baitzuen. Oihuka eta gauzak botatzen hasi zitzaizkigun eta

ziguten. Haiek zer egingo, eta gaueko hamabiak zirenean, plaza ume eta familiez gainezka zegoela, zezen bigantxa bat askatu zuten. Kristoren zalaparta izan zen, jendea beldurrez korrika... handik bi egunera, Gonzalez “Koteli” alkateak ez zigula ordainduko esan zigun idiskoa ateratzegatik... Gu ez ginela izan esan genuen, baina alferrik izan zen.

Nola murgildu zinen musika munduan?

Diskoak entzuten nituen eta Tolosan orduan diskoa

KILOMETROAK 08 >>> JAIAN ATERATAKOAREKIN ERAIKIN BERRIAREN ZATI BAT ORDAINDUKO DA

Helburu guztiak beteta

Kilometroak jaiaren bihar amunean elkartu da Galtzaundi Josune Aiestaran Irurako Ikastolako zuzendariarekin. Lainotik jaitsi eta gogor ari dira lanean.

Kilometroak jaiarekin eraikin berriaren zati "txiki" bat ordainduko da, gainontzekoa ordaindu ahal izateko lanean jarraitu behar dute. Pozez zorutzen daude eta behin eta berriz errepikatzen dute: "Eskerrik asko".

Erredakzioa

Pentsatu bezala atera zen dena?

Oso ondo atera zen. Gauean genuen sentsazioa zen, ez ginela ezertaz jabetu. Azkar igaro zitzaigun eguna, baina urtea ere segituan igaro da.

Kilometroak jaia esleitu zizutenean honek zekarren lanaz jabetzen zineten?

Konsziente ginen eraikin berriak zenbat balio zuen. Jai hau gabe ez zen posible eraikina ordaintzea. Ez zigun halako beldurrik eman. Bergaran lekukoa jasotzean hasi ginen urduritzen. Hala ere, eskaera egin aurretik bagenekien bailarak laguntza osoa emango zigula. Beti izan dugu presente gure umeek egiten duten bidea, Irurako ikastolan hasi, Anoetan jarraitu eta Laskoraineraino.

Irurako ikastolan lan egitera ohituta zaudeleta esaten duzue hala ere...

Guk ikastola berria behar genuela eta, 5 urte eman ditugu lanean, garagardo azoka antolatuz eta abar. Horrek asko erraztu dizkigu lanak. Ba-

tzorde buruak ere ondo aukuratu genituen. Izan dugun antolakuntza eta koordinazio ona azpimarratuko nituzke. Txikiak izatea ere abantaila handia izan da.

Aurreikusitako helburu ekonomikoa lortu duzue?

Oraindik kontuak egiteko daude baina nik uste dut baietz. Kilometroak jaiaren ateratakoa ordea, ordaindu beharrekoaren zati txiki bat besterik ez da. Eraikin berria egitea milioi bat eta zazpiehun mila euro kostatu da. Udalak seihun milako mailegua hartu du beregain eta Ikastolak bostehun mila eurotako. Ikastolen Elkarteko solidaritate kutsak, hirurehun mila euroko mailegua eskatu du, eta kilometroak jaiarekin beste hirurehun mila euro ateratzea espero dugu. Egia da, jaiaren antolakuntza esleitura izateak ate asko zabaldu dizkigula, maileguak eskatzera koan adibidez.

Bestaleko helburuak lortzeko ere balio izan du...

Bai. Irura herri berria da, jende gehiena kanpokoa da. Normale-

an haurrak izaten dituztenean Ikastolaren bueltan egiten dituzte lagunak gurasoek. Urte honek jende berria ezagutzeko bidea eman die, eta eman digu guri ere.

Harrigarria da era honetako zerbitzu publikoa ematen duen entitate batek zernolako ahaleginak egin behar dituen bere etorkizuna bermatzeko...

Ba bai, harrigarria da. Herriko ikastetxe bakarra izanda eta horrelako ahaleginetan ibili beharra aurrera jarraitzeko... Nire ustez dirulaguntza gehiago izan beharko genituzke. Herri onura gara, kooperatiba gara eta Eusko Jaurlaritzak onartu digu hori. Eta hala ere...

Kilometroak antolatzekeo lekukoa Donostian dagoen arren, hementi lana ez da amaitu.

Orain batzorde bakoitzak memoria egin behar du eta dena osatzen denean donostiarrei emango diegu. Batzorde buru guztiek egin beharreko bilerak ere baditugu aurretik. Ekonomia batzordeak urte beteko lana du oraindik. Bien bitartean Zurrilako

ikastolakoekin harremanetan gaude, laguntza behar baitute, guk gure garaian behar izan genuen bezala.

Eguneko datuak eskura al dituzu?

2.000 bazkari zerbitzatzeko lekua jarri zen hiru jangelatan eta 2.000 bazkariak eman ziren. Tonbola ere oso ondo joan zen, opari guztiak banatu ziren. Bizikleta aparkalekuan 200 bizikleta gorde ziren. Edoskitze guneak ere arrakastatua handia izan zuen. Bi gune jarri genituen eta egunean bertan hirugarren edoskitze gunea inprobisatu behar izan genuen Ikastolan. Zeliakoentzako menuak ere izan zuen bere harreratxoak. 14 pertsonen erabili zuten aukera hori.

Mailegua ordaintzeko lanean jarraitu beharko duzue...

Bai. Garagardo azoka egiten jarraitu behar dugu eta II. Ñañarri Rallysprinta ere egingo da.

Amaitzeko...

Amaitzeko eskerrrik asko, eskerrrik asko eta mila aldiz eskerrrik asko. Urteak igaro beharko ditugu eskerrak ematen. ■



KILOMETROAKO8



Ibilbidearen irekiera ekitaldiarekin hasi zen festa.



Irurako ikastolako gunea jendez lepo egon zen egun osoan.



Anoetako plazan ere jende ugari ekintza ezberdinez gozatzen.




Guneetan ez ezik ibilbidean zehar ekintzak izan ziren, irudietan Mulambo.



Txolarre irratia egin zuen eguneko megafonia gonbidatu ugariaren laguntzaz.



Katategin milaka gaztek gozatu zuten bertako musika eskaintzaz.



«KRISTONA»



Anoetako kiroldegian 1.000 pertsonentzako lekua zegoen.



Laskorain ikastolakoek prestatu zuten paella ia 1.000 pertsonek dastatu zuten.



Jendea erruz etorri zen aldirietako trenetan.



Anoetako ikastolan denetik egin ahal izan zen.



Jendetza Irurako herri gunean.

ANOETA >>> HARRERA EZIN HOBEA IZAN ZUEN URRIAREN 12AN OSPATUTAKO EUSKAL JAIAK

Baserria protagonista

"Primeran atera zen dena". Horrela laburtu dute Urriaren 12an Anoetan ospatu zen Euskal Jaiaren antolatzaileek. Larunbat arratsaldean sega apustuarekin hasi eta biharamuneko iluntzera arte, festa giro ederra izan zen Anoetan: baserritar eta artisauen azoka, lanabesen erakusketa, txaranga, dultzaineroak, txekor-jatea, herri kirolak, erromeria... Antolatzaileek datorren urtean Euskal Jaia errepikatzeko asmoa erakutsi dute.

Erredakzioa



Azokan Anoetako baserritarrak izan ziren protagonista.

Hego haize indartsuak ez zituen anoetarrik izutu eta denak, baserritarrez jantzita atera ziren plazara Anoetan lehenengo aldiz antolatzen zen Euskal Jaiatzera. "Oso ondo atera zen dena, giro bikaina sortu zen. Herritarrenaldetik, harrera oso ona izan zuen jaiak", azaldu du Tere Soto Anoetako kultur teknikariak. Dena hain ondo atera zenez, datorren urtean Anoetako bigarren Euskal Jaia antolatzeko asmoa erakutsi dute, nahiz eta ez dakiten ospakizunaren eguna mantenduko ote den.

Bezperan Argindegi baserriko zelaietan jokaturako sega apustuarekin berotu zituzten motorrak iganderako. Goizeko 09:45ean, jaiaren aurkezpenarekin eman zitzaion hasiera egunari: "Batzuk Hispanitatearen eguna ospatzen ari diren bitartean, guk gure euskaldun nortasuna adierazi nahi dugu gaur", esan zuen Gorka Otxoa-Aizpurua zine-

gotziak. Aurkezpenean parte hartutako dantzari eta biolin joleei Loatzo Musika Eskolako kalejirak hartu zien lekukoa. Goiz osoan ibili ziren herriko kaleetatik. Ondoren dultzaineroek jarraitu zuten. Bien bitartean, plazan, artisau eta nekazarien azoka egon zen egunak ilundu arte. Orotara 14 postu egon ziren. Anoetaren euskal nortasuna adierazteaz gain, herriko nekazari eta baserritarrei bultzada bat ematea zen Euskal Jaiaren helburua. Horregatik, azokako protagonistak herriko baserritarrak izan ziren. Hiru izan ezik, gainontzeko postu guztiak Anoetako baserritar eta artisauak jarri zituzten.

BASERRIA PLAZARA

Baserriko produktuez gain, produktu horiek ekoizteko beharrezkoak diren lanabesak ere erakusgai egon ziren Anoetan. Baserriz baserri lanabesak biltzen aritu ondoren, era-

kusketa jarri zuten frontoiaren aldameneko parkean. "Oso txukun jarri ziren lanabesak erakusgai eta jende ugari inguratu zen hau ikustera". Era-kusketarekin batera, perragile bat ere ekarri zuten Anoetara. Lanean ari zen perragilea jendez inguraturik egon zen unero. Kultur teknikariaren hitzetan, "oso polita eta kurio-soa izan zen perrak nola egiten zituen ikustea". Baserria plazara ekartzeko ekintza bat gehiago izan zen belar meta egitearena. "Goizean, jendea azokako postuak ikusten ari zen bitartean, bi herritarrek belar-meta egin zuten plaza erdian". Haur eta gaztetxoentzako herri kirolek ere ikusmina sortu zuten.

TXEKOR JATEA ARRAKASTATSUA

Bezperan jarri zuten txekorra erretzen. Igande eguerdian hau jateko txanda iritsi zen. "300 pertsona bildu ginen

txekor-jatean", jende asko antolatzaileen ustetan. Bazkalostean kantuan aritu ziren Anoetako Kukuak taldearen ekimenez. Mahaitik altxa ondoren berriz, Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-semeen harrijasotze erakustaldia izan zen. Anoetarrik eta anoetarrik ez zirenak hurbildu ziren saioaz gozatzera. Egunari amaiera emate aldera, erromeria izan zen ondorenean. "Herriko bi dantzari dinamizatzaile lanean jarri genituen dantza pausoak erakutsi eta jendeak dantza egin zezan". Dinamizatzaile onak behar zuten izan, denak dantzan jarri baitzituzten. Gerriak astintzen zahututako indarrak berreskuratzeko taloak izan ziren. "28 kilo arto-irin ekarri eta dena amaitu zen", diote antolatzaileek harrituta baina aldi berean pozik. Lehenengo Anoetako Euskal Jaiak erantzun aparta izan du. Datorren urtean errepikatze modukoa. ■

TOLOSA >>> ENGELS ATENEOA LIBURUTEGIAN, MARXISMOAREN LIBURU KLASIKOAK AURKITUKO DITUZU

Marxismoa apalategietan

Liburuen bidez, Marxismoaren ideiak zabaltu eta bultzatu nahi ditu Tolosako Erremontari kaleko 3. zenbakian dagoen Engels Ateneoa liburutegiak. 100 liburutik gora daude apalategietan, liburutegian bertan edo etxean irakurri ahal izateko. Ekimenaren bultzatzaileek azaldu diote Galtzaundiri zer den Engels Ateneoa.

Erredakzioa

Noiz zabaltu zenuten Engels Ateneoa?

Apirilean jarri ginen mar-txan eta guretzat gauza berria zenez pixkanaka joan gara ateneoa atontzen. Azken asteetan, batez ere, liburutegia prestatzen aritu gara, dagoe-neko 100 liburu baino gehiago ditugularik. Astelehenetik ostiralera dago irekita arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Ze helbururekin zabaltu duzue?

Berlingo harrisia erori ze-netik sozialismoaren eta marxismoaren aurkako ofen-tsiba ideologiko ikaragarria eman da. Kapitalistek komu-nistatza hartu nahi zituzten estatu burokratiko haiek or-dea ez zuten zer ikusirik Marx eta Engelsek planteatutako sozialismo zientifikoa-rekin eta ezta 1917ko Erru-siako iraultzaren helburuekin

ere. Benetako komunismo-rantz joateko ez da nahikoa ekonomia nazionalizatuta egotea, beharrezkoa da hon-etaz gain ekoizteko indarrak (fabrikak, bankuak, lurrak...) langileen eta herritarren kontrolpean egotea. Honek soilik bermatuko luke benetako demokrazia, boterea esku gutxitan dagoen bitartean ezi-nezkoa da benetako demokraziarik egotea. Horregatik, beharrezkoa ikusten genuen sozialismoaren eta marxismoaren ideiak bultzatzeko zerbait egitea.

Engels Ateneora sartzen denak zer aurkituko du?

Marxismoaren liburuak aurkituko ditu batipat. Hala ere, baditugu bestelako liburu politiko, filosofiko eta historikoak ere. Helburua liburu marxista klasikoaren gehiengo eskaintzea da. Dударik gabe, hau ez genuke posible izango Federiko Engels Fundazioaren laguntza gabe. Lan garrantzitsua egiten ari dira iraultza betean dagoen Amerika Latina osoan zehar liburu marxistak zabaltzen, La Habanako liburu azoka famatuan ere parte hartuz. Bestetik, liburutegiaren aukera izango du nahi duenak, lehen genion bezala liburuak etxera eramateko aukera ere emanez. Ziur gaude gainera



Ekimenaren bultzatzaileak Engels Ateneoaren atarian.

gizarte hobe baten alde dauden herritar eta militanteek beren borrokarako ideia garrantzitsuak aurki ditzaketela ateneoko liburuetan.

Ekintza ezberdinak antolatze-ko asmo ere baduzue...

Hilean behin liburu aurkezpen bat egiteko asmoa dugu. Lehenengoa urriaren 30ean izango da. Manifestu Komunista liburu klasikoaren aurkezpena izango da. Orain dela 150 urte baino gehiago idatzitako liburu honek modu harrigarri batean aurreikusten ditu gaur egungo munduko egoerak. Hitzaldiez gain dokumental eta

pelikulen proiektzioak ere eman nahi ditugu.

Marxismoa zabaltze aldera, liburu historikoak euskarara itzultzeko ahaleginetan ari zarete...

Gure beste helburuetako bat gazteleraz dauden liburu marxista klasikoak euskarara itzultzea da. Aspaldi itzulita zegoen arren Manifestu Komunista euskaratu dugu eta Durangoko azokarako beste bi liburu argitaratuko ditugu euskaraz: Rosa Luxemburgoren "Erreforma ala Iraultza" eta Leninen "Estatua eta Iraultza". Hauen aurkezpenak ere egingo ditugu datozen hilabetetan. ■

Zumardi
SEGUROS BILBAO
Aholkularitza integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia San Martin, 16 943 425 886 943 420 187	Donostia Garibai, 8 943 420 259 943 430 947	Tolosa Rondilla, 11 943 670 615 943 671 149
--	--	--

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

JANTZIAK OSKI
oiñetakok
Nafarroa Etorbidea, 11
Tel.: 943 651 264 - TOLOSA

TOLOSALDEA >>> AZAROTIK OTSAILERA IZATEN DA MENDIAN SUTEAK SORTZEKO ARRISKU GEHIEN DAGOEN

Baso-suteen arriskuaren aurr

Udazkeneko hego haizea eta basoak hartzen dituzten iratze eta sasiak osagai paregabeak dira mendian suteak pizteko. Euskal Herrian, azarotik otsailera bitarteko hilabeetan izaten da baso-suteak sortzeko arrisku gehien. Sute arriskuaren aurrean eskualdean ditugun balibideak ezagutzeko, Gipuzkoako Baso Elkartera jo du Galtzaundik.

Erredakzioa

Gipuzkoako Baso Elkartek Tolosako San Esteban auzoan du egoitza.

Bertan, Gipuzkoako zuhaitzi eta pinudien jabe diren, 2.385 bazkide biltzen (47.883 hektarea) dira. Tolosaldeko bazkideak 544 dira eta guzti hauen artean 4.883,94 hektarea osatzen dituzte. Errealitatean, Tolosaldean mendi eta basoek 36.000 hektarea osatzen dituzte. Baso Elkartean bazkide-tuta dagoen hektarea kopurua portzentaia garrantzitsua da beraz.

Fernando Otazua, elkarteko zuzendariak egin dio harrera Galtzaundiri. Baso-suteen arriskua kudeatzeko eskumena Foru Aldundiarena izan arren, Baso Elkartek zuzenean parte hartzen du esparru honetan, baso-jabe-



2005eko Elduaingo sutearen ondorioz era honetan geratu zen Santa Kruz basiliza.

ekin duen gertuko harremanarengatik. “Sute arrisku handiena egoten den urte sasoiari sartu gara. Historiari begiratu gero, baiezatu dezakegu, hemen azarotik otsailera artean sortu direla sute gehienak”, azaldu du Fernando Otazua. Hego haizea ez da noski suteen eragilea, baina sua zabalteko lagun paregabea da. Otazuak baso-suteen hiru eragile ezberdinak ditu: Horietako bat, gizakiaren “arduragabekeria” da. “Ekintza bat edo bestea egiteko, sua ardurarik gabe egiten da maiz mendian”, dio Baso Elkarteko zuzendariak, “kasu gehienetan hau izaten da eragilea”. Dena den, sute hauek izaten dira kontrolatzen errazena, “normalean,

sasi edo hondakinak erre eta sua ondo itzaltzen ez denean sortzen baitira”. Amatzeko zailenak eta ondorioz kalte gehien eragiten dutenak sute-intentzionaletan dira, nahita eragindakoak alegia. “Nahita sortutako sua dela esaten da, soilik hori frogatzen duten zantzuak aurkitzen ditugunean”. Sua nondik eta nola sortu den jakin ezin bada berriz, “eragile ezezaguna” bezala izendatzen da. Gero, azpiegituren erruz sortutako suteak daude. “Argi indarkableen egoera txarra adibidez sute baten eragilea izan daiteke”. Era honetan sortu zen Gipuzkoan izandako azken baso-sute handiena. 2005an Zestoan hektarea asko erre ziren eta baserri bat su garrek kixkal-

duta geratu zen. Hala ere, Fernandok 1989. urtea ekarri du gogora. “Baso-suteei dagokienean, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat urte beltza izan zen hori. Sua zabalteko faktore guztiak elkartu ziren. Abendua zen, izugarrizko haizea ibili zen, lehorte ikeragarria zegoen eta hezetan maila ere asko jaitsi zen”, gogoratu du. 3.000 baso hektarea erre ziren eta landatu gabeko eremuak dagokienean beste 3.000 hektarea kixkaldu zituen suak. “Gipuzkoako basoak oso kaltetuak geratu ziren. Adunak esate baterako hektarea asko galdu zituen”. Suteak han eta hemen piztu baziren ere, Tolosaldean kalterik izan zenik ez du gogoratzen Fernandok. Ez 89. urteko suteetan bakarrik, baso elkartek lanean daramatzen 25 urtetan Tolosaldean ez da sute garrantzitsurik gertatu. “Oñati, Elgoibar, Jaizkibel eta Gipuzkoako puntu geografiko gehienetan sortu izan dira suteak, Tolosaldean ordea ez dugu kasu larririk ezagutzen”, dio. Salbuespen modura, 2005an Elduairenean gertatu zen sutea aipatu du. “Hura izan zen bailaran kalte gehien eragin zuen sutea”. Martxoan gertatu zen sutea. Ezbeharren ondorioz, Santa Kruz basiliza kixkali zen.

SUTEAK EKIDITEKO AHOLKULARI

Baso Elkartea baso-suteak ekiditeko asmoz, lehen aipatutako

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan eguneroko.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel.: 943 652 176

S. RIVAS RTU

ARTE TAILERRA
HAURRAK ETA HELOUAK NIÑOS Y ADULTOS

SORMEN LANA: Marmozketa, margoak, eskultura.
LIBRE CREACIÓN: Dibujo, pintura, escultura.

TOLOSA - Kale Nagusia 16 - Tlf: 677340685

ONAK
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:
Granitoan marmolean eta beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URNIETA
Tel.: 943 331 227 - Faxa: 943 008 613

GARAIA

ean, Tolosaldea prest

jokaera arduragabeak zuzentzen saiatzen da. Inausteak nola eta noiz egin eta basoan sua piztu behar bada jarraitu beharreko prozeduraren gainean informatzen ditu bere bazkideak. “Mendian sua piztu ahal izateko Foru Aldundiak zehaztutako prozedura bat jarraitu behar da. Lehenik eta behin sua egiteko baimena eskatu behar da. Sua piztu behar den egunean bertan ere, Aldundia jakinaren gainean jarri beharra dago. Eurak egun horretako baldintzak aztertu eta honen arabera erabakitzen dute baimena eman edo ez”. Baimena eduki arren, zenbait baldintza bete behar dira sua

egiteko garaian. “Eguna ilundu aurretik, beharrezkoa da sua itzalita edukitzea. Garrak amatzeko berriz, ura erabiltzea gomendatzen dugu”. Dena den, Baso Elkarteko zuzendariak azaldu duenez, mendiko hondakinak ezabatzeko, beste prozedura batzuk nagusitzen ari dira.

Prebentzioan ez ezik, suteak eragindako kalteen balorazioan ere parte hartzen du Baso Elkartek. Zuzendariak azaldu duenez, jorrazteko geratzen zaien alorra, aseguru etxeena da. Alor honetan hutsune handiak daudela nabarmendu du. “Baso Elkartean, duela hiru urtetik *Agroseguros* izeneko

aseguru etxearekin egiten dugu lan. Honek kixkalitako basoa birpopulatzeak duen kostua hartzen du beregain, baina ez da suteak sortutako kalteen arduradun egiten”.

SUTEEI ERANTZUTEKO PRESTATUTA AL GAUDE?

Tolosaldean baso-sute esanguratsurik gertatu ez bada ere, garrantzitsua da sute arriskuaren aurrean prestatuta egotea. Fernando Otazuak eskualdean ditugun prestazioen berri eman digu. “93an, *Compostela Bosques* Europa mailako suteen aurkako prebentzio plana egin zen. Plan honetatik sortuz uraska izeneko kamioien

beharra”. Kamioi hauek mendian ibiltzeko diseinatuta daude eta 8.000 litro ur sartzeko gaitasuna dute. Herriguneko ur hornitzaile batetik edo eta mendiko erreketatik bete dezakete depositua. “Kamioi bereziak dira. Suhiltzaileak ez daude uraskak gidatzeko trebatuta. Horretarako gidari berezituak daude”. Eskualde bakoitzak uraska kamioi bat du, Tolosaldean ere badu berea. Ordizian aurkitzen da Tolosaldeari dagokion kamioia. Beraz, Baso Elkartek sute-arriskuaren aurrean ondo prestatuta gaudela nabarmendu du. “Ea hori frogan jartzeko beharrik ez dugun izaten”.

GALTZAUNDIREN KULTUR EKITALDIAK

Nafarroa oinez Kultur errota

9:00etan autobusak Tolosako tren geltokian

JON URRAZA

BOB? NOR DA BOB?
IKUSKIZUNA 20:00etan
TOLOSA (BEDAIO) Artubi Elkartean - Azaroak 1

Idoia Sanchez
ipu in kontalaria

urriak **9**

LEABURU. 17:00, liburutegian
GAZTELU. 18:30, eskolan

urriak **16**

IRURA. 17:30, liburutegian
HERNIALDE. 18:30, liburutegian

urriak **23**

IKAZTEGIETA. 17:00, Liburutegian
BALIARRAIN. 18:15, kultur gelan

azaroak **6**

BERASTEGI 17:00, eskolan
ELDUAIN. 18:00, eskolan

Euskarazko komikien erakusketa

Urriak **13**tik **24**ra

Ibarrako kultur etxean

urriak **16** Joseba Antxustegietxarte-ren hitzaldia 18:30etan kultur etxean “Komikien sorrera”

Euskarazko komikien erakusketa

Azaroak **3**tik **8**ra

Alegiako kultur etxean

Erakusketa
11:00etatik-13:00etara, 17:00etatik-20:00etara

Azaroak **6** Joseba Antxustegietxarte-ren hitzaldia 18:30etan kultur etxean “Komikien sorrera”

TOLOSA >>> HILABETEKO BONUEK OSO HARRERA ONA IZAN DUTE. AURRERANTZEAN BONU SISTEMAREKIN J

Herriko aretoan zinemaz gozat

Garai txarrak dira hauek zine areto txikienezat. Komertzio-guneetako "filmea eta bokata" planak herri askotako zinema aretoetako argiak itzali arazi ditu. Zorionez hau ez da Leidor antzoki eraberrituaren kasua. Udaleko Kultura Sailak eta herriko Zine Klubak bultzatuta, asteburu- eta zine emanaldiak zein Zine Forumeko saioak areagotu egin dira azken urte honetan. Zine festa eta hilabeteko bonu bereziak gauzatzeak ahalegin berezia eskatu badie ere, saiatuz gero, herritik mugitu gabe zineaz goza daitekeela erakutsi dute.

Eredakzioa

Badira bi urte Leidor antzokia eraberritu zutela. Areto berriari probetxua ateratze aldera, filmei ez zik, arte eszenikoei ere lekua egin zaie. Iaz, urriko zubia baliatuz egin zen zine festa, mugarririk jarri zuen Leidorreko zinema eskaintzan. "Zine festa honen ondorioz, igande gaueko emanaldia jarri zen eta geroztik mantendu egin da", azaldu du Gurutze Zubeldia Kultura Saileko langileak. Hau ez da berrikuntza bakarria izan: Ostegunetako Zine Forumak bi emanaldi ditu egun, lehen saio bakarria izaten zen. Haurrentzako filmeak ere egonkortu egin dira, asteburu haurrentzako emanaldi bat eskaintzen delarik.



2009. urtean zineak tarte gehiago izango duela aurreikusten da.

HILABETEKO BONUAK, "IRAULTZAILEAK"

Iazko urriko zine festari Gabonetan eta Aste Santuetan antolatutako zirenek jarraitu zieten. "Aste Santuetako zine festa honen ostean jarri genuen hilabeteko bonuaren sistema martxan. Apirilean frogatu egin genuen eta iraillean esperientzia errepikatu dugu", dio Zubeldiak. Hilabeteko bonuek izugarriko arrakasta izan dute. Irailean 1.200 bonu saldu ziren. Irene Larrazak kultur teknikariak "iraultzaile" jo ditu. Izan duten arrakasta ikusita, hilabeteko bonu sistemarekin jarraitzeko asmoa erakutsi dute, beti ere, Leidorren antolatzen diren gainontzeko kultur emanaldiak kontutan hartuz. "Esate baterako, azaroan abesbatza lehiaketa eta txotxongilo jaialdiak direla eta, zinemarentzat tarte gutxiago izango dugu", gogorarazi du Larrazak. Honenbestez, hilabete bakoitzeko bonuak ez dira ber-

dinak izango emanaldi kopuruari dagokionean.

Iraileko bonuak, 11 filme 12 euroren truke ikusteko aukera eskaini zuen. Bonuan filme komertzialak eta zine forumeko emankinzunak sartzen dira. Filme bakoitza behin ikusi daiteke baina ikusleak aukeratu duen saioan. Hilabeteko lehenengo ostegunean Leidorreko leihatilan eskuratu daitezke. Haurrentzako emanaldiak ez dira bonu hauetan sartzen. Horregatik, gaztetxoentzat 4 emanaldiko bonu berezi bat ateratzeko saiakera ere egin da azken hilabete honetan.

2009AN ERE JARRAITUKO DU APUSTUAK

Tolosan antolatzen den ekimen andana dela eta bonu sistema egonkortzea zaila den arren, ildo horretatik egingo dute lan Kultura Sailan. Kultura teknikariak iragarri duenez gainera, 2009an litekeena da zinemari espazio gehiago ematea,

"argi baitago jendea gustura dagoela eta ekimenak ondo funtzionatzen duela". Horretaz gain, 2009an aurrekontuak murriztu egingo direla uste dute Kultura Sailean, "ondorioz zinearen mesedetan arte eszenikoek leku gutxiago izango dutela" pentsa daiteke.

KARTELDEGIA IRIZPIDE BATZUEN ARABERA

Azken urte honetan eman den beste berrikuntza bat, asteburu- eta zine emanaldiak osatzeko eskuduntza aldaketa izan da. Lehen, Zine Klubak egiten zuen lana, orain, Kultura Sailean zeregina izatera igaro da, zinemaren susperraldirako onena zela pentsatuz. Gurutze Zubeldiak karteldegia osatzeko dituzten irizpideak azaldu ditu: "Beti saiatzen gara, bi filme komertzial, haurrentzako filme bat eta zine forumeko beste pelikula bat ekartzen. Zine komertzialeko filmeak publiko ezberdinen interesak bete ditzaten saiatzen gara,

ARRAITUKO DUTE

zereko aukera

gazteizuzendutako filme bat eta helduei eskainitako beste bat proposatuz". Beti ez da posible izaten ordea irizpide hauek betetzea, estreinaldiek lehentasuna izaten baitute.

Zine Klubak, lehen bezala ostegunetako Zine Forumak antolatzen jarraitzen du.

Urtea amaitu bitartean zine festarik egongo ote den galde-tu die Galtzaundik Zubeldia eta Larrazari. "Zine Festak zubi luzeak baliatuz egin izan ditugu eta zoritxarrez aurten ez dugu horrelakorik. Beraz, aste-buruetako programazioa ahalik eta onena izan dadin zahutuko ditugu indarrak". Bien bitartean Irene Larraza teknikariak

gazteentzako zine maratoi bat antolatzeko lanean ari direla iragarri du. "Donostian egiten den Beldurrezko eta Fantasiako Zine Jaialdiarekin elkarlanean ari gara filme horiekin osatutako ziklo bat eskaintzeko". Ildo honetatik, Leidor, hementik kanpo egiten diren zine zikloen hartzaile izan daitekeela uste dute Kultura Sailan. "Diputazioa esfortzu bat egiten ari da ziklo horiek sare baten bidez zabaltzeko. Tolosarentzat izugarritzko onura izango litza-teke hori".

ZINEA HERRIAN

"Batetik, zine areto berri bateko 800 eserleku hutsik

egotea ez zen batere gustagarria. Bestetik, Tolosako Zine Klubak indar handia du herrian, eta hauek zinea bul-tzatzeko gogoz zeuden". Bi faktore horiek lotuta ekin zitzaion zinema sustatzeko lanari. Ahaleginak eman du bere fruitua. Zinema sustatze-az gain, asteburuetan herrian geratzeko ohitura berreskuratzen lagundu dute. "Jendeak herrian filme bat ikusteko ohitura galduta zuen, komertzio-guneetara joateko joera zuten denek. Orain ikusi da, jende-ari herrian geratzeko aukera emanez gero, herrian geratzen dela", borobildu du Irene Larrazak. Hori lortzeko ordea,

"Irailean 1.200 bonu saldu ziren."

ezinbestekotzat jo du Gurutze Zubeldiak Zine Kluba. "Tolosan zinea horrela zabaldu bada Zine Klubarengatik da. Beste herrietan ez bezala, Tolosan ondo jakin dute belaunaldi aldaketa egiten. Jende gazte ugari batu da taldera".

Zinemaren aldeko apustuan, martxan dauden ekimenei eta etor daitezkeen proposamen berriei zabalik daude Leidor eta Tolosa. Orain arte bezala, apus-tu egiten jarraituko dute. ■



SARIAK

Sariak 18 urtetik behera:
Lehenengoa: 400,00 euro eta argitalpena paperean eta web gunean.
Bigarrena: 200,00 euro

Sariak 18 urtetik gora:
Lehenengoa: 600,00 euro eta argitalpena paperean eta web gunean.
Bigarrena: 400,00 euro

NON ETA NOIZ AURKEZTU LANAK

Lanak Galtzaundiko egoitzan aurkeztu ahal izango dira edo postaz helbide honetara bidaliko dira:

Galtzaundi Euskara Taldea
Ibarrakomik komiki lehiaketa
Nafarroa Etorbidea 6, behea
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkezteko epea 2008ko irailaren 26tik azaroaren 26ra izango da. Sari banaketa abenduaren 12an izango da 19:30etan Ibarako Kultur Etxean.

Lehiaketa honi buruzko informazio gehiago lortzeko (oinarriak, modalitatea eta hizkuntza, epaimahaia, nola aurkeztu...) deitu 943 655 004 telefono zenbakira, idatzi kultura@galtzaundi.com edo sartu www.galtzaundi.com web gunean.






Nola aukeratu pantaila egokia?

Erabiltzaile guztiei etxean duten ordenagailu pantailari buruz galdetuz gero, gehienek gustura daukela baina hobetu litekeela erantzungo lukete. Zertan hobetu litekeen galdetuz gero berriz hauxe izango litzateke erantzuna: "handiagoa izan zitekeen". Kontuz, pantailak ez dira hobeak handiagoak izateagatik. Ordenagailuarentzat pantaila erosi behar dugunean, honi emango diogun erabilera hartu behar dugu kontutan. Hona hemen baliagarri izango zaizkizun irizpide batzuk:

PANTAILA MOTA

Gero eta zailagoa bada ere, gaur egun oraindik, CRT ize-na duten "hodi" motako pantailak aurkitu daitezke. Dena den, monitorea mota honek beherakada handia jasan du pantaila lauak merkaturatu zirenetik. Zalantzarik gabe, azken hauen aldeko hautua da egin litekeen aukerarik onena. Izan ere, "hodi" motako monitoreek leku asko hartzeaz gain, sortzen duten erradiazioa pantaila lauek sortzen dutena baino askoz ere handiagoa da.

FORMATUA

Betiko 4:3 formatudun pantaila erabili dezakegu, edo bestela, 16:10eko formatu etzana duen monitorea. Pixkanaka azken hau nagusitzen ari da. Izan ere, pantaila etzanak aplikazio guztietarako egokiak dira. Honen eraginez, ekoizle guztiak monitorea etzanaren aldeko apustua egin dute. Gainera gaur egun garrantzia izugarria hartu duen gai multimedientzat egokia izateak balio gehigarri bat eman dio.



BEREIZMENA

Pantailak puntukako matrizeen arteko konposizio baten bidez erakusten dute irudia. Puntu hauetako "pixel" deitzen zaie, eta logikoa den moduan, gero eta pixel gehiago orduan eta bereizmen hobea eskainiko da, irudiaren kalitate hobea izango delarik. Bereizmen maila, pixelen zabaleraren eta altueraren arteko biderkaketaren arabera da. Pantaila batek eduki behar duen gutxieneko bereizmena, 640 x 480-koa da eta gehienez, 3.840 x 400 izan ditzake.

KONTRASTEAK

Pixel bakoitzak eskaini dezakeen argiaren arteko diferentzia da kontrastea. Gaur egungo ohiko pantaila lauek 1.000:1.eko kontrastea dute. Oso kontraste ona.

DIRDIRA

Funtzio ahaztua da hau, baina uste baino garrantzitsuagoa izan daiteke. Batez ere, argi askoko lekuetan lan egin behar denean. Kasu hauetan dirdira handiko pantailak behar izaten dira ikusmena ez kaltetzeko.

ERANTZUTEN DENBORA

Irudiak mugimenduan daudenean, pixel batek denbora jakin bat behar du informazio berri horretan bilakatzeko. Hori da pixelaren erantzuteko denbora. Pantaila erosterako garaian beraz, erantzuteko denbora gutxien behar duen hura erosi.

KONEXIOAK

Nagusiki, bi era daude monitorea ordenagailura konektatzeko: Era analogikoa, (VGA loturarekin) eta digitala (DVI erako loturarekin). Pantailaren kalitatea axola bazaizu (bideoak eta irudiak ikusteko bada) gomendagarriak dira DVI loturadunak. Baina kontuz, txartel grafikoa eduki behar dute.

ERABILERA

Pantaila aukeratzeko garaian bere ezaugarri teknikoak zure beharretara ondoen egokitzen dituen hura hartu. Izan ere, bideo zein irudiak ikusteko asmorik ez baduzu gehiegikeria da konfigurazio handiko pantaila bat erostea. ■

IRATZAR

Erlojutegia • Konponketak
Zilar gaietan berezitasuna
Diseinuko zilarra
Bisuteria

Santa Maria Plaza, 1 - Nagusia
TOLOSA • Tel.: 943 674 615



Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181
Mobiela: 639 72 42 60



Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

Ordenagailuak eta konponketak
Enpresa eta partikularrentzako
Mantenimenduak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

ABESBATZA>>> 40. ALDIA OSPATZEKO, MIKROKOSMOS TALDEAREN EMANALDI BEREZIA ANTOLATU DUTE

40. aldiz, abesbatzarik onenak Tolosan

1967an bere bidea hasi zuen Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa iritsi da bere 40. aldira. Zenbaki borobila era xume batean ospatuko dute egitarauan saio berezi batzuk txertatuz. Gainontzean, aurreko aldi guztien ildotik, 40.ak ere kalitatea izango du ezaugarri nagusi. Urriaren 29tik azaroaren 2ra, Tolosan entzun ahal izango dira munduko abesbatzarik onenak.

Leire Zubeldia

Tolosako Ekinbide Etxeak balorazio bera egiten du Abesbatza Lehiaketako aldi bakoitzaren amaieran: “Zaila izango da aldi honetako kalitatea gainditzea”. Luismi Espinosa Abesbatza Lehiaketako zuzendariaren ustez ordea, “kontua ez da iazkoaren maila gainditzea, orain arteko 39 aldietan egon den kalitatea mantentzea baizik”. Arau horixe dute Abesbatza Lehiaketaren antolatzaileek. 40. aldian ere txintxo beteko dute araua. “Etorriko diren abesbatzei begiratuta kalitatea bermatuta dago. Beste behin ere munduko abesbatzarik onenak izango ditugu Tolosan”. Kalitatearen ostean, aniztasuna da TEEkoen bigarren irizpidea. “Jatorri, eskola eta kolore ezberdine-

ko abesbatzak ekartzen saiatzen gara. Baina ez ditugu ezberdinenak izate hutsagatik ekartzen. Abesbatza hauen mailari begiratzen diogu beste guztiaren gainetik”, berretsi du Espinosak.

Era xumean bada ere, 40. aldian ospatzeko zenbait kutixi prestatu dituzte. “Tolosan abestu duten eta sentsazio berezia eragin zuten zenbait abesbatza gonbidatu ditugu: Letoniako Kamer, Kubako Exaudi eta Pragako haur abesbatzaren kasua da hori”. Honetaz gain, Mikrokosmos taldeak emanaldi berezi bat eskainiko du. “Zinea eta abesbatza uztartzen dituzte. Garai batean pianoarekin egiten zen moduan, filme mutu ezberdinetako irudiei ahotsez lagunduko diete. Zoragarria izango da”, aurreratu du.

ADI ABESBATZA EUSKALDUNEI!

Guztira 21 abesbatza izango dira aldi honetan parte hartuko dutenak. 9 ahots nahasi modalitatean, 6 ahots taldeetan eta 5 haur abesbatzen modalitatean. 16 herrialde egongo dira ordezkaturik. “Aurten lehenengo aldiz, Taiwan ordezkaturik egongo da Leidorren Formosa Singers abesbatzaekin”. Lehiaketako antolatzaile moduan, Luismi Espinosak ez du gustuko kinielarik egitea. Hala ere, aurtengo aldian



Mikrokosmos taldearen irudia.

abesbatza euskaldunek aukera handiak dituztela adierazi du. “Euskal Herrian ditugun abesbatzarik onenetarikoak dira Leida Kantika Korala haur abesbatza eta Kup taldea”, dio. Honekin batera, eta 40. aldiak izango duen beste ezaugarri bat azpimarratze aldera, Espinosak haur abesbatzen alorra “bereziki ederra” izango dela azaldu du.

EUSKAL KONPOSITORE GAZTEEN ERAKUSLEIHO

Tolosako Abesbatza Lehiaketak baditu aitortu ez zaizkion beste merituzko batzuk ere. Euskal konpositore gazteei euren lanak ezagutarazteko aukera ematea alegia. Abesbatzei jarritako derrigorrezko lan moduan hemengo konpositore batek egindako kantu bat interpretatzea eskatzen zaie. Al-

de horretatik, Abesbatza Lehiaketak sortzaile asko konposatzen hastera animatu dituela uste dugu”, azaldu du zuzendariak. Aurten, haur abesbatzek David Azurzak eginiko Tolosako Iñauterietako bi pieza abestu beharko dituzte. Folklore sailean, Xabier Sarasolaren *Neskatxa ederrak* kantua abestu beharko dute eta Polifonian Felix Zabalaren *Ave Maria*.

Amaitzeko, epaimahaiaren osaketaz hitz egin nahi izan du Espinosak. “Epaimahaia lehiaketako dibertsitatearen isla da: eskola eta herrialde ezberdinak ordezkatzeko dituzte kideak”. Epaimahaia, ahotsak eta Tolosa, dena prest dago beraz, urriaren 29tik azaroaren 2ra, 40. aldiz, munduko ahotsik onenak kantatzen entzuteko. ■

 **kutxa**

SANTA LUZIA GARAGEA

Grua zerbitzua 24 orduetan



943 653 491 943 653 874
943 653 985 943 806 020
Santa Luzia, 1 TOLOSA

Herri kirolak, bizi bizirik

SEGAN, LOKOTX BILTZEN, TRONTZAN ETA ZAKUA GARRAITZEN IBILTZEN

Leire Zubeldia

Arkaitz Arteaga segalaria da. Jokin Garmendia trontzan aritzen da, Unai Iraolarekin bikote eginez. Azken honek, zaku garraioan ere parte hartzen du Julian Bereziartua eta Igor Maizekin batera. Lokotx biltzen aritzen da berriz Eneko Garmendia. Denak dira baliandarrak, Unai izan ezik. “Ikaztegietakoa da berez baina erdia Baliarraingoa du honez gero”, azaldu diote Galtzaundiri erdi txantxetan.

Aukeratutako jokoetan lehiatzen hasi berriak diren arren, punta puntan ibiltzen jakin dute. Txapelketetan parte hartzen orain hasi badira ere, beti erakutsi izan dute baliarraindarrak herri kirolarekiko zaletasuna “Denetik probatu dugu”, diote. “Esate baterako, hauek denak nire belar biltzaileak dira”, esan du Arkaitz Arteagak.

Jaietako herri kirol jaialdia iturburu

Iturburu beretik dator kirolari guzti hauen grina. Baliarraineko jaietan egiten den herri-tarren arteko herri kirol jaialdia izan da kasu guztietan giltzarri. “Jaialdiaren aitzakian hasi ginen denak. Joko batean edo bestean saltsan hasten zara eta esaten dizute, *zu joko honetan ondo ibiliko zinake ba!* Jendeak animatu egiten zaitu eta horrela zerorri ere animatu egiten zara, eta jarraitu egiten duzu”, azaldu du Julian Bereziartuak. Era honetan, denak ere kasualitatez hasi ziren euren modalitatean.

Eskualdean biztanle gutxien dituen herria izanagatik, Tolosaldean ez dago herri kirol-tan Baliarrainek adina ordezkari dituen herririk. Segá, lokotx biltzen, trontzan, zakuan... Joko askotan egin dute froga bertako gazteek. Herri kirolak bizi bizirik daude Baliarrainen, baliarraindarrak herri kirolak bizi egiten dituztelako.

Herrian trontza txapelketa bat antolatu behar zela eta hartu zuten zerra Jokin Garmendiak eta Unai Iraolak. “Zazpi pertsonak eman genuen izena”, dio Jokinek, “bikoteak osatzeko pertsona bat behar zela eta, Unai animatu genuen. Kasua-

litatez elkarrekin ateraginen txapelketa horretan”. Aitor Esnola, Legorretako trontzalariak trontzan jarraitzera animatu zuen bikotea. “Gipuzkoako II. mailako txapelketa antolatzen bazuten ea parte hartuko genuen galdetu zigun eta guk

baietz”, jarraitu dute. Iaz hasi ziren lehiaketa ofizialetan parte hartzen.

Arkaitz Arteaga segalaria, egungo Euskal Herriko txapel-duna ere kasualitateak hala nahi izan zuelako hasi zen segan. “Herriko jaietan apustu bat



Arkaitz Arteaga, Eneko Garmendia, Jokin Garmendia, Unai Iraola eta Julian Bereziartua.

Baliarrainen

RA BALIARRAINGO GAZTEAK. HERRITAR GEHIAGO ANIMATU NAHI DITUZTE

egin nuen ikaztegiatar baten aurka”, kontatu du. Mahairen bueltan zeuden lagunek azaldu dutenez gainera, Arkaitzen kasua bitxia da. “Beti gu ginen jaietan segan ibiltzen ginenak eta bera protestaka aritzen zen beti gauza bera egiten genuelako. Eta berak behin hartuko sega eta gehiago ez du utzi”, azaldu dute umoretsu.

Bereziartua, Iraola eta Maiz ere gisa honetan hasi ziren zaku garraioan. Txapelketa antolatua nahian ari zen Herri Kirol Federazioa eta gutxieneko talde kopurua osatze aldera animatu zituzten: “Mutrikuko bi talde zeuden izena emanda eta hirugarren talde bat osatzeko eskatu ziguten guri”. Abuztu amaieran jokatu zen txapelketa hau lehenengo aldiz.

Eneko Garmendiak bere bigarren denboraldia burutu du lokotx biltzen. “Herriko jaien biharamunean lokotx batzuk jarri zizkidaten zenbat denboran biltzen nituen ikusteko. Marka polita egin nuen, eta hori nahikoa izan zen lokotx biltzen hasteko”, kontatu du.

Elkar animatuz, eta herri kirolerako zaletasuna elkarri kutsatuz hasi dira denak. Entrenatu ere batera egiten dute. Arkaitz da belardi batean edo bestean taldetik aparte entrenatu behar izaten duena. Herri-tarrek berriz euren arrastoa jarraitzen ikasi dute, kanpoan jokatzeko diren txapelketetara joateko autobusak antolatuz.

GUSTURA DENBORALDIAREKIN

Hasi berriak diren arren eta herri kirolak zaletasun gisa hartzen badituzte ere, punta puntako kirolariak direla era-

kutsi dute amaitu berri den denboraldian. Urterik borobilena Arteagarena izan da. Segalariaren txapelik preziatuena jantzi du Euskal Herriko Txapelketa irabazita. Ez zegoen faboritoen artean, baina ezustekoa eman du: “Irabazteko aukerak ikusten nituen. Gipuzkoako txapelketatik Euskal Herriko txapelketara hilabete t’erdiko tarte egon zen. Tarte horretan oso ondo aritu nintzen entrenamenduetan”. Gustu-



Arkaitz Arteagak Euskal Herriko txapela lortu zueneko irudia.

ra dago segalaria, jokaturako lehenengo finalean txapela jantzea ez baita marka kaxkarrak. Segala gabe, aipatu behar da Herri Arteko Sega Txapelketan ere parte hartu duela Baliarrainek. Duela bi urte eta iaz antolatu zen txapelketa hau eta bietan Arkaitz, Julian, Jokin eta Iker herritarrek osatutako taldeak irabazi zuen. Aurten ez da herri artekorik izan. Arkaitzentzat bezala, Enekoentzat ere bigarren denboraldia izan da hau. Iaz, Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelak ekarri zituen Baliarrainera. Aurten, Gipuzkoako bigarren egin du eta Euskal Herriko hirugarren. “Gipuz-

koako Txapelketan ez nintzen batere gustura geratu, denbora kaxkarrak egin nuen. Euskal Herrikoan aldiz, nahiz eta hirugarren lekuan geratu 20 segundutan hobetu nuen Gipuzkoakoan egindako denbora”. Jokin eta Unai trontzalariek, Gipuzkoako lehenengo mailako txapelketan eta Euskadiko bigarren mailakoan hartu dute parte. Azken hau Baliarrainen jokatu zen gainera. Bietan hirugarren sailkatu dira. Gustura

“Herriar gehiago animatu nahi dituzte herri kirol-tan proba egitera”.

“Bakoitzak 120 metro egin behar genituen 80 kiloko zakua lepoan hartuta. Gutariko inor ez zen 80 kilo pisatzeraren iristen eta gure aurkariak berriz 100 kilo inguruko gizonak ziren”, azaldu dute. Hala ere lan txukuna egin zuten eta bigarren geratu ziren. Euskadiko txapelketa oraindik ez da jokatu eta ez dirudi jokatu denik. “Agian gure beldur dira eta horregatik ez gaituzte abisatu”, azaldu dute txantxetan.

Eurak animatu diren moduan, herriar gehiago animatu nahi dituzte herri kirol-tan frogatzen egitera. Unai ingude bat egiten ari da. “Orain ingude hori erabiliko duena falta da”, esan dute erdi irribarrez. Ingudean ariko dena aurkitu eta aizkoran eta harrija-sotzen aritzen jarduteko norbait topatuz gero, herri kirol taldea egiteko moduan dira Baliarrainen: “Asteburuetan eta herrietako jaietan erakustaldiak egiteko ordea denak libre egon beharko genuke eta hori oso zaila da”, ohartarazi dute. Hala ere, zakuan, lokotx biltzen, trontzan eta segan jarraituko dute Baliarraingo mutil hauek. Orain neskak animatu nahi dituzte gauza bera egitera. Bien bitartean, eta txapelketarik egokitzen ez bada, Baliarraingo jaietan herri kirol jaialdiak antolatzen jarraituko dute. ■

Urriaren 17tik azaroaren 7ra arteko hitzo

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

» Azaroaren 8ra arte: **Jose Luis Urdapilletaren** argazki erakusketa.

» Azaroaren 15era arte: **Vanessa Alzateren** pintura, eskultura, grabatu eta "collage" erakusketa

HERNIALDEKO OSTATUA

» Azaroaren 10era arte: **Ander Gillenea** eta **Josune Martinez de Albeniz-en** argazki erakusketa.

M U S I K A

LEIDOR

» **Urriak 17: El Caserio** zarzuelaren entsaio orokorra 20:30ean Tolosako Orfeoak antolatuta.

» **Urriak 18: El Caserio** zarzuelaren emanaldi nagusia 20:30ean.

» **Urriak 24: Evolution & Love** ikuskizuna 20:30ean.

» **Urriak 25: Teresa Salgueiro & Lusitania Ensemblek** eskainita La Serena kontzertua. Mundua Tolosan Zikloaren baitan 20:30ean.

BONBERENEA

» **Urriak 17: Karelean** eta **Napoka** iria taldeen kontzertuak 22:30ean.

» **Urriak 18: Bonberenea 8. Skate txapelketa eta grafiti erakusketa** 16:30etatik aurrera. **Black lagun eta Foison Four** taldeen kontzertuak 22:30ean.

» **Urriak 24: Lauroba** eta **Chicarella** 22:30ean.

» **Urriak 25: Itzalak** eta **Ipar haizea** taldeak 22:30ean.

» **Urriak 26: Tex & The sun flowers** talde japoniarra eta **Esne Beltza** zuzenean 22:30ean.



ZINE FORUM

LEIDOR

» **Urriak 23: Sueños del desierto** filma 19:15 eta 21:45ean.

Z I N E M A

LEIDOR

» **Urriak 19: La isla de Nim** haurrentzako filma 17:00etan. **Los girasoles ciegos** 19:30ean eta 22:00ean.

» **Urriak 20: Los girasoles ciegos** 20:30ean.

» **Urriak 26: Viaje al centro de la tierra** haurrentzako filma 17:00etan. **Yo servi al rey de Inglaterra** filma 19:30ean eta 22:00etan.

» **Urriak 29: Yo servi al rey de Inglaterra** 20:30ean.

TOLOSAKO KULTUR ETXEA

» **Urriaren 20tik 25era: Zinema eta Kooperazioa Emanaldia 2008** zikloa Mugarik Gabe elkarteak antolatuta.

SAN ESTEBAN AUZOKO XXI. KULTURA ASTEA

» **Urriak 17:** 23:00; Kontzertua, Tamala afrikar perkusio ikuskizuna eta MIX6T (hip hp, funky eta reggae). Ondoren, Dj Talo eta Aritz Sound System.

» **Urriak 18:** 16:00; Altxorraren bila eta mus txapelketa. 16:30; Haur jolasak. 18:00; Buruhandiak. 19:00; Txokolate jana Bonberenea txarangalaitua. 00:00; Kantaflor taldearen kontzertua. Ondoren Dj Jokin.

» **Urriak 19:** 09:00; Diana Herriko txistulariekin. 10:00; Trikitixa auzoko baserrietan. 11:00; Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan. 12:00; Toka txapelketa. 14:00; Auzoko babarrun jatea. "Goteras" en omenez Ttontor Elkarteak berari eskainitako kantuen aurkezpena. Ondoren, Koxkorrena orkestrarekin dantzaldia.

A LEGIAKO U D A Z K E N KULTURALA

» **Urriak 18:** Astigarragako Aiztondo eta Txintarri abesbatzen kontzertua elizan, 19:45ean.

» **Urriak 19:** Nekazal azoka Bulebarrean 11:00etan.

» **Urriak 22:** Amaia Zinkunegi ipuin kontalaria Liburutegian, 18:00etan.

» **Urriak 25:** Herria kantuan emanaldia- ren proiektzioa Antton Iztueta eta Eduardo Arraier-en eskutik Kultur etxean, 11:00etatik 13:00era arte.

» **Urriak 26:** Dantzari Txiki eguna.

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113

errrotatxo okindegia

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

Orduak

»»» **Urriak 27, 28, 29, 30 eta 31:** Herria kantuan emanaldiaren proiektzioa 18:00etatik 20:00ak arte kultur etxean.

»»» **Azaroak 3, 4, 5, 6 eta 7:** Joseba Antxustegiarteren komiki erakusketa kultur etxean, 17:00etatik 20:00ak arte.

»»» **Azaroak 4:** Ipar Potosirekin bat proiektzioa kultur etxean 19:30ean.

»»» **Azaroak 6:** Komikien sorkuntzaz hitzaldia Joseba Antxustegiarterekin 18:30ean.



M E N D I H A M A B O S - T A L D I A

OARGI ELKARTEA

»»» **Urriak 28:** 19:30ean Oargiko Aretoan, BROAK PEAK 8047m igoera buruzko emanaldia

»»» **Urriak 29:** 19:30ean Oargiko Aretoan, VIA DIRECTA AMERICANA (PETIT DRU) eskalada buruzko emanaldia

»»» **Urriak 30:** 19:30ean Kultur Etxeko Aretoan, K-2 8611m igoera buruzko emanaldia

»»» **Urriak 31:** 19:30ean, Oargiko Aretoan, KORJENEUSKAYA 7105 m igoera buruzko emanaldia

»»» **AZAROAK 1 tik 9 arte:** Mendiko material azoka

MOTZEAN

Oargik antolatuta, argazki lehiaketa

Tolosako mendi elkarteak urtero egiten duen Mendi Hamabostaldia, argazki lehiaketa bat antolatuta du. Mendia eta natura dira proposatutako gaiak eta gai hauek jorratzen dituzten argazkiak aurkeztu beharko dira.

Urriaren 29a baino lehen entregatu beharko dira argazkiak Karlis argazki dendan. Ondorengo hauek dira antolatzaileek jarritako oinarriak:

- Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Argazki bakoitza 30x40 zm-ko kartulina batean itsatsita aurkeztu beharko da. Kartulinan argazkiaren titulua eta egilearen kontakua jarri beharko dira. Argazkiaren neurria 20x30 zm-ekoa izango da.
- Argazkiak kamera digitalarekin atera beharko dira.

Azaroaren 1etik 9ra bitartean erakusgai jarriko dira auzetutako argazki guztiak. Animatu eta egin Flash!



Guardiako farmaziak

URRIA

- Ostirala, 17**
Etxebeste Jesus M^o (Gemnikako arbola, 3) Tolosa
- Larunbata, 18**
Olarreaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa
- Igandea, 19**
Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
- Astelehena, 20**
Morant R.(Zabalarreta, 1) Tolosa
- Astearte, 21**
Azpiroz Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa
- Asteazkena, 22**
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa
- Osteguna, 23**
Tolosa M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
- Ostirala, 24**
Iturrioz I. (Euskal Herria 3) Ibarra
- Larunbata, 25**
Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
- Igandea, 26**
Ugarte, (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Astelehena, 27**
Olarreaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa
- Astearte, 28**
Olarreaga J. (korreo 2) Tolosa
- Asteazkena, 29**
Morant R.(Zabalarreta, 1) Tolosa
- Osteguna, 30**
Azpiroz Lourdes (Amaroz, 9) Tolosa
- Ostirala, 31**
Etxebeste Jesus M^o (Gemnikako arbola, 3) Tolosa
- Larunbata, 1**
Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

Telefono interesgarriak

- Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur**
Osasun zentroa 943 653 212
- Altzo**
Medikua 943 654 737
- Anoeta-Alkiza-Hernalde**
Medikua 943 652 339
- Baliarrain**
Medikua 943 689 003 (asteazk.)
- Berastegi-Elduain**
Medikua 943 683 361
- Bidegoian**
Medikua 943 681 134
- Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gatzelu-Leaburu**
Osasun etxea 943 672 411
- Ikaztegieta**
Medikua 943 653 329
- Irua**
Osasun zentroa 943 690 720
- Tolosa**
Anbulatorioa, larrialdiak 943 650 931
San Esteban, hitzordua 943 006 800
Gemnikako Arbola,hitzor 943 006 900
Amarozko dispensarioa 943 672 637
Asunzion klinika 943 675 799
(larrialdiak) 943 675 390
San Kosme San Damian
geniatrinoa 943 672 932
Udaltzaingoa 943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016
Ur zerbitzuak (aberiak) 639 352 156
Iurreamendi egoitza 943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak 112
DYA 943 672 536
Gurutze Gorria 943 674 888
. 943 651 425
Ertzantza 943 673 022
Tolosa Gasa 943 675 320
- Lizartza**
Medikua 943 682 077
- Orendain**
Medikua 943 655 595
- Orexa**
Medikua 943 682 228


Vicente Errotuloak
Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irua Faxa. 943 694291
rotulosvicente@Jet.es

T X O K O L A T E G I A


Uli
Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

K A F E T E G I A

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

Muxu-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

■ **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**

ETXEBIZITZA

■ **Etxebizitza salgai** Alegian. 65 m². 168.000 euro. **629 52 51 50**.

■ Neska batek, estudio bat edo pisu konpartituan **gela bat alokatu nahi du**. 948468327.

■ **Etxebizitza salgai** Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**

■ Ikasle bat, **pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. 627834993.

■ **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

ALOKAIRUA

■ Tolosako Iparragirre auzoan 34 m²ko lokala alokairuan. Argitsua eta egonera onean. **645 710 789**.

SALGAI

■ Setter Ingles arrazako **txakur kumeak salgai** Abaltzisketan. **697.92.99.99**

■ **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipa 18.000 euro. **629 52 51 50**.

HOROSKOPOA

URRIAREN 17TIK AZAROAREN 7RA ARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Ate bat itxi eta beste bat zabalzera zoaz. Horrek ez du esan nahi itxi duzun atearen beste aldean geratu diren pertsonak ahaztu behar dituzunik. Beti eskertuko dizute eurekin egoteko tartea hartzen baduzu.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Ez dakizu besteei entzuten, nahiz eta zuri entzuna izatea gustatzen zaizun. Ongi erreparatu jakien egoerari. Gutxi behar duzu beherako izugarri bat edukitzeko.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Uste duzunaren kontra, aholkulari ona zara. Beraz ez lotsatu eta eman lasai zure gomendioak. Hala ere, maitasun kontuetan ez zaude gomendioak emateko moduan.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Neurritz kanpo ari zara lanean. Geldiditxo bat egin eta horrela bizitzeak merezi ote duen baloratu beharko zenuke. Ingurukoek hartzen duzun erabakia babestuko dute.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Mugikorrera behin eta berriz deitu dizun zenbaki ezezaguna ez da hain ezezaguna. Hartu ezazu dei hori. Baina agudo, bere ahaleginean nekatu baino lehen.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Bere urtebetetze eguna izan ez arren, oparixto bat egin beharko zenioke. Maitasun keinuen faltan dago. Eskertu egingo dizu eta gehiago maiteminduko da.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Lanez lepo, korrika zabilza batetik bestera. Nekea eramateko lagungarria izango zaizu bitaminak hartzea. Bestalde ibili tentuz, azpikoan ari zaizkizu.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Hilabete honetan lanak poza eta bizi-pen bereziak sentitu araziko dizkizu. Gustura arituko zara hasi duzun proiektu horretan. Zure buruarekin bakeak egiten lagunduko dizu horrek.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Laguntza ekonomiko bat jasoko duzu laister. Konformatu zaitez oparitutakoarekin, bestela ezer gabe geratuko zara. Diru hori ondo erabili zaizu.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Nahiz eta bere zaletasunak konpartitu, gustatzen zaion hori elkarrekin egiteko ahalegina egin beharko zenuke. Asko poztuko da. Eta gainera, ez zarete beti zuk nahi duzuna egiten arituko!



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Krisi ekonomikoaren eragina zure lantokira ere iritsi da. Langabeziaren mamua ikusten hasita zaude ondorioz. Lasai, zuk ere badakizu langile fina zarela. Gustura daude zurekin.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Kontzentratzen saiatu behar duzu. Aspaldi honetan galduta duzu burua. Hartu sakon amasa eta erabaki: "hemen nago eta hau nahi dut".





Negu honetan, ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Senda Bide

Dietista diplomatuen aholkularitza profesionala

Dieta pertsonalizatuak Doako bisitak



- Elikadura biologikoa
- kontsulta naturista
- Zeliakoentzako elikadura
- bibirako orduak hartzen ditugu



Benetako
jatorrizko Bibi

San Frantzisko, 19 - Tel.f: 943 655 444 - Tolosa
Korreo kalea, 3 - Telf.: 943 674 140 - Tolosa



Mauka

42-58 neurriak

Errementari, 46 20400 Tolosa telf. 943 675 289



Bat

Karrozeria, Mekanika eta elektrizitatea
Ibaiondo industrialdea, 11
Tel.: 943 692 205 • Faxe. 943 69 37 71
Irura 20270

